BFA, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Ekimen ekintzaileak sustatzeko dirulaguntza 2025-2026

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad

Adi!



2026-2027ko deialdia argitaratu gabe!

EKIMEN EKINTZAILEAK SUSTATZEA 2026
137/2025 FORU DEKRETUA

1

ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

2

ENPRESA-TRANSMISIOA

Dekretu osoa hemen dago eskuragarri:

Hemen


EKIMEN EKINTZAILEAK SUSTATZEA 2026

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

IZAPIDETZE ELEKTRONIKOA

Informazio gehiago eta sarbidea:

Hemen



EKIMEN EKINTZAILEAK SUSTATZEA 2026
137/2025 FORU DEKRETUA

1

ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

NORENTZAT?

ERAKUNDE/ENPRESA ONURADUNAK

- Profesional autonomoak eta enpresak, edozein forma juridiko dutela ere.
- Bizkaikoak (egoitza soziala, fiskala eta lantokia)
- 2025/07/31 etik 2026/07/30ra bitartean EJZn alta ematea
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

NORENTZAT EZ?



- IFZ/NAN bera izanda, 2026. urtean edo 2025. urtean , dirulaguntzari dagokion jarduera-ekonomikoan, jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja eman duten entitateak*

*edo enpresetako bazkide izan diren pertsonak eta orain indibidualki altan emango direnak



- Dirulaguntza hori aurreko bost deialdietan jaso zutenek


- Enpresan baldintzak betetzen dituen inor ez badago

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

PERTSONENTZAKO BALDINTZAK

- EJZn eta autonomotan alta eman baino gutxienez hiru hilabete lehenagotik Bizkaian erroldatuta egotea.
- Autonomoen erregimenean (edo baliokidean) alta ematea EJZn altan emandako egun berean.
- EJZn alta emateko unean honako egoera hauetakoren bat izatea:

1. -**Langabezia**: Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak
2. -**Enplegua hobetzea**: betiere lan-kontratuak hitzarmenean ezarritako lanaldiaren %40 gainditzen ez badu eta sustatzailea euskal enplegu-zerbitzuan, Lanbiden, enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badago
3. EEE edo ABEEE egoeran egotea.
4. -Lanerako ez diren praktikak egin izana.



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

NORENTZAT EZ?

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, bazkidea edo sustatzailea ez da kontuan hartuko:

- Baldin eta baja izan badu jarduera ekonomikoaren kode berean (lau digituko kode numerikoa), langile autonomoen araubideko lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak direla-eta, edo jarduera berean, mutualitateen kasuan, 2025 eta 2026. urteetan

- Parte hartzen duen enpresa-proiektu guztietan, aurkeztutako proiektuetako batean bakarrik kontuan hartuko da.





1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

PERTSONENTZAKO BALDINTZAK

2025/07/31Etik 2026/07/30ra bitartean:

- aholkularitza eta negozio plana egin izana erakunde homologaturen batekin edo DEMArekin

+

- Prestakuntza-ikastaroa «Bizkaiko Ekintzailetza Eskolaren» bidez



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

ZENBATEKOAK

- 5.000 *€ sustatzaile bakarra dagoenean

(zenbatekoa txikitu egin daiteke araubide orokorrean, autonomoen araubide berezian edo mutualitatean alta emandako eguna jarduera ekonomikoen altaren data baino geroago bada)



- 2.000 € gehiago, baldintzak** betetzen dituen bazkide osagarri bakoitzeko. Gehienez bost bazkide edo sustatzaile.

(**ikastaroa egitea eta aholkularitza izan ezik, nahikoa baita pertsona batek egitea).

- Gehieneko zenbatekoa: 15.000 €

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

KOBRANTZA

- Gehienez zenbatekoaren % 80, dirulaguntza ebazten den unean.
- Gainerako % jardueran alta eman zuenetik urtebete igaro denean, justifikatu ondoren.




1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

BALDINTZA NAGUSIA ETA JUSTIFIKAZIOA

Jardueran alta emanda egotea urtebetez. Jardueran **baja emateak kobratzeke dauden zenbatekoak galtzea eragin dezake** (edo ordura arte kobratutakoaren zati bat edo osorik itzultzea) Beraz,**altari eustea eskaera egiten denean, espedientea izapidetzen den bitartean, ebatzi eta ixten den egunerarte. (diruz lagundutako zenbateko guztia kobratu arte)**





Zelan?

Gizarte Segurantzaren “Ordaindutako kuoten txostena” aurkeztuta justifikatzen da

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad



NOLA EMATEN DA?
NORGEHIAGOKA

Horrek esan nahi du eskaerak hainbat aldagairen arabera baloratuko direla eta hainbat puntu emango direla.

Puntuaziorik altuena* duten eskaerak izango dira dirulaguntza jasotzen lehenak, eskuragarri dagoen kreditua agortu arte.

Eskaerak eskuragarri dagoen dirua baino gehiago badira, puntuazio txikiena dutenak dirulaguntza ez jasotzeko arriskua izango dute.

*Puntuazio bera lortzen duten erakundeak eskaeraren entrega-dataren arabera ordenatuko dira, betiere dokumentazio guztia beteta badago.

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1.LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORA

Atal hau ebaluatzeko, INSKRIPZIO-ALDIEN ETA LAN-EGOERAREN TXOSTENA, LANBIDEk emana, eta Gizarte Segurantzaren LAN-BIZITZAREN TXOSTENA aurkeztu beharko dira.



Langabezian emandako denboratzat hartuko da sustatzailea enplegu-zerbitzu publiko batean enplegu-eskatzaile gisa etengabe inskribatuta egon den denbora, baldin eta Gizarte Segurantzan alta-egoeran ez badago.

- Urtebetetik beherako langabezia: 1 puntu
- Langabezian urtebete edo gehiago eta bi urte baino gutxiago egotea: 3 puntu
- Bi urte edo gehiagoko langabezia: 5 puntu


1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

2.BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN KOLEKTIBOETAN EGOTEA

Gizartean baztertuta egoteko ARRISKUAN dauden kolektiboen ezaugarriak (2. oinarria, 1 atala):

1.- Bizkaiko gizarteratzeko foru-zerbitzuen zerbitzu eta prometan sartuta dauden pertsonak.
2.- Udalen bateko oinarrizko gizarte-zerbitzuek baztertutzat hartutako pertsonak.
3.- Gutxienez % 33ko desgaitasun aitortua duten pertsonak.
4.- Guraso bakarreko kideak.
5.- DSBE/Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen duten pertsonak
6.- Toxikomano izandako pertsonak (alkoholiko eta drogazale izandakoak), sei hileko tratamendu jarraitua jaso izanik.
7.- Genero indarkeriaren biktima diren pertsonak.
8.- Preso ohiak, integrazio-prozesuetan dauden errefuxiatuak eta etxegabetasun-prozesuak gainditu dituzten pertsonak.
9.- Emakumeen salerosketaren biktima izandako emakumeak



RGI Renta de Garantía de Ingresos

Kolektibo hauetako kide izatea: 3 puntu
Kolektibo hauetako kide ez izatea: 0 puntu

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

3.EKINTZAILEAREN ADINA







- EJZn alta emandako egunean 30 urte edo gutxiago dituzten gazteak: 3 puntu.
- EJZn alta emandako egunean 45 urte (beteta) baino gehiago dituztenak: 5 puntu.
- EJZn alta emandako egunean 50 urte (beteta) baino gehiago dituztenak: 7 puntu.

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

4 –ERAKUNDE ONURADUNAREN EGOITZA FISKALEKO UDALERRIAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA-INDIZEA (I. eranskina)

- % 6eko edo hortik beherako langabezia-tasa: 1 puntu
- % 6etik gorako eta % 10tik beherako langabezia-tasa: 2 puntu
- % 10ko edo hortik gorako langabezia-tasa: 3 puntu



© Unai Garcia. 44343590. ©2019



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK


5-EGITEN DEN JARDUERA

Gehienez 10 puntu lor daitezke kasu hauetan:

1) Erakundearen jarduera ekonomikoa jarduera-arlo hauetakoren batekoa bada:

- Industria
- Zaintzaren ekonomia
- Ingurumen-jasangarritasuna

5 puntu.









1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

—Zainketen ekonomia:

Pertsonen ongizatea zaindu eta mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiez arduratzen den ekonomiaren zatia da, hala nola adinekoak, gaixoak edo ezinduak zaintzeaz

—Industria-jarduera:

lehengaiak produktu elaboratu edo erdilanduetan eraldatzeko prozesuen eta eragiketen multzoa da, normalean makineria, teknologia eta eskulan antolatua erabiliz

—Ingurumen- jasangarritasuna:

Birziklatzea, ekonomia zirkularra eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen duten jardueren multzoa





1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

5-EGITEN DEN JARDUERA

2) Izaera berritzailea duten edo ekonomian, gizartean eta ingurumenean eragina duen ekintzailetza proposatzen duten jarduerak.

5 puntu








1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

—Izaera berritzailea:

Merkatuko produktu, zerbitzu edo prozesuetatik nabarmen aldentzen den produktua, zerbitzua edo negozio-prozesua (edo bien konbinazioa) sortzeko proposamena justifikatzen duten enpresa-proiektuak.





—Inpaktuko ekintzailetza:

Balio erantsia sortzea justifikatzen duten enpresa-proiektuak, ekonomiari, gizarteari edo ingurumenari dagokienez.

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

6-FORMA JURIDIKOA

Gizarte-ekonomiako enpresen kasuan puntuatzen da: kooperatibak eta lan-sozietateak.

- Forma juridiko horietakoa izatea: 5 puntu
- Forma juridiko horietakoa ez izatea: 0 puntu





1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

7-DEMAREN ANEZKA EDO TALDEKA PROGRAMETAKO PARTE-HARTZAILEAK

Dagozkien oinarri arautzaileen babesean, Anezka edo Taldeka programan eta/edo Barakaldoko DEMA Enpresa Garapena buru duten enplegu-prestakuntzako programa mistoetan 2025ean eta 2026an modu egokian parte hartu eta programa gainditu duten pertsonak.

3 puntu lortuko dira.





1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Lehenengo deialdia
2026ko martxoaren 16an hasiko da, 9:00etan, eta 2026ko apirilaren 8an amaituko da, 13:30ean.

Lehenengo deialdian, 2025eko uztailaren 31tik 2026ko martxoaren 16ra bitartean, biak barne, EJZn alta emandako enpresa-proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.



1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Noiz egingo da bigarren deialdia?



Bigarren deialdi bat eginez gero, lehenengo deialdiko aurrekontu-baliabideak agortu ez direlako, EJZn alta emanda dauden enpresa-proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira martxoaren 17tik bigarren deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu arte

Beraz, lehenengoa ebatzi arte itxaron behar da, eta Aldundiak kreditu erabilgarria eta hurrengo epeak argitaratu arte.

1-ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA



Bigarren deialdia
2026ko uztailaren 15ean hasiko da, 8:30ean, eta 2026ko uztailaren 30ean amaituko da, 23:59an

EKIMEN EKINTZAILEAK SUSTATZEA 2026
137/2025 FORU DEKRETUA

2

ENPRESA-TRANSMISIOA



2-ENPRESA-TRANSMISIOA



NORENTZAT?
ERAKUNDE/ENPRESA ONURADUNAK

Enpresa-eskualdaketari emango zaio, hots:

a) Funtzionamenduan dagoen enpresa baten **% 80 gutxienez erostea.**

b) Jarduera berarekin jarraitzea eta irtengo den enpresaren jardueraren titulartasuna iraungitzea, haren forma juridikoa edozein izanik ere. Eskuratzaileak alta berria eskatuko du, hau da, **negozioa eskualdatzea**

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

NORENTZAT?
ERAKUNDE/ENPRESA ONURADUNAK

Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1-Enpresa-transmisioa DEMA Enpresa Garapenak tutorizatzea, soilik lagatzaileak aldez aurretik zehaztu ez badu transmititu nahi duen enpresaren edo eskualdatu nahi duen negozioaren balioa

informazio gehiago





2-ENPRESA-TRANSMISIOA

NORENTZAT?
ERAKUNDE/ENPRESA ONURADUNAK

2-Enpresa-eskualdaketa merkataritza-kontratu bidez egin beharko da, eskritura publiko bidez, merkataritza-funtsaren balioa adierazita; edo, negozio-eskualdatzeen kasuan, kontratu bidez.

3-Dirulaguntza **enpresa eskuratzailearentzat izango da**.



2-ENPRESA-TRANSMISIOA



NORENTZAT EZ?



Kanpoan gelditzen dira negozio digitalak eta ezkontideen edo hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasun eta/edo ezkontza-ahaidetasunezko senideen arteko eskualdatzeak.

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

ZENBATEKOAK

- 10.000 € sustatzaile bakarra dagoenean (5.000€ ekintzaile bezala eta 5.000€ transmisio gastuentzako)
- 5.000 € gehiago baldintzak* betetzen dituen bazkide osagarri bakoitzeko. Gehienez hiru bazkide edo sustatzaile.

(*ikastaroa egitea eta aholkularitza izan ezik, nahikoa baita pertsona batek egitea)



- Gehieneko zenbatekoa: 20.000 €

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

BALDINTZAK

Enpresak sortu eta abian jartzeko laguntzak bezala arautzen dira.

1

ENPRESAK SORTU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK



2

ENPRESA TRANSMISIOA

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1. Langabezian emandako denbora
2. Adina
3. Udalerriko langabezia-indizea
4. Forma juridikoa



Eta gainera:

5. Enpresa eskuratzaileko langile kopurua, bazkideak barne (1-5 puntu artean)
6. Negozioa 5.000 biztanletik beherako herri batean badago (5 puntu)
7. Enpresako langileek erosten badute (10 puntu)

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Lehenengo deialdia

2026ko martxoaren 16an hasiko da, 9:00etan, eta 2026ko apirilaren 8an amaituko da, 13:30ean.



Lehenengo deialdian, 2025eko uztailaren 31tik 2026ko martxoaren 16ra bitartean, biak barne, EJZn alta emandako enpresa-proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

2-ENPRESA-TRANSMISIOA

Noiz egingo da bigarren deialdia?



Bigarren deialdi bat eginez gero, lehenengo deialdiko aurrekontu-baliabideak agortu ez direlako, EJZn alta emanda dauden enpresa-proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira martxoaren 17tik bigarren deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu arte

Beraz, lehenengoa ebatzi arte itxaron behar da, eta Aldundiak kreditu erabilgarria eta hurrengo epeak argitaratu arte.

2-ENPRESA-TRANSMISIOA


ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Bigarren deialdia
2026ko uztailaren 15ean hasiko da, 8:30ean, eta 2026ko uztailaren 30ean amaituko da, 23:59an



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-Enpresen eta enpleguaren sustapena

Laguntzen gida lortu



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BESTE DIRULAGUNTZA BATZUK



Informazio gehiago

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Bizkaia
enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, inclusión social e igualdad


BI DIRULAGUNTZAK BATERAEZINAK DIRA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Lan eta Enplegu Saila

Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Lan eta Enplegu Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Adi!



2027rako baldintzak argitaratzeke daude !

Lan eta Enplegu Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



2026.urtean
Eskabideak aurkezteko epea

2026ko urriaren 1etik 30era

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2026KO IRAILAREN 21EKO EBAZPENA

III KAPITULUA

«PROIEKTUA EZARTZEKO»

IV KAPITULUA

«PROIEKTUA SENDOTZEKO»

Ebazpena eta informazio guztia:

Hemen

Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2026KO IRAILAREN 21EKO EBAZPENA

III KAPITULUA

«PROIEKTUA EZARTZEKO»



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO


III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

NORENTZAT?
ONURADUNAK

Enpresa-jarduera bat martxan jartzen ari diren eta hori ezartzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonei bideratutako laguntzak.

Pertsona fisikoak:

- Banakako enpresaburuak eta profesionalak
- Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideak, **betiere dirulaguntza modu pertsonalean eskatzen bada.**



III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO





BALDINTZAK

·EJZn eta Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, dagokion araubidean **alta emanda egotea, 2025eko azaroaren 1a eta dirulaguntza eskatu den eguna bitartean.**

.Jarduera EAEn helbideratuta egotea sozialki eta fiskalki, eta lantokia bertan kokatuta egotea (inbertsioak eskuratu zirenetik gutxienez bi urtez mantendu behar da)

. Eskaera-egunean **18 urte beteta edukitzea**

III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

BALDINTZAK

·EJZn alta eman **aurreko egunean langabezian egon izana** eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon izana

·**EJZn alta eman aurreko sei hilabeteetan norbere konturako langile gisa jarduera bera egin ez izana**

·**Dirulaguntzen lerro horren beraren onuradun suertatu ez izana aurreko deialdietan**




III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

DIRUZ LANGU DAITEZKEEN JARDUKETAK

Jarduerarekin lotura zuzena duten aktibo finkoetako inbertsio hauek:

·Eraikuntza-lanak (arkitektoaren azterlan teknikoa barnean), lokalak erostea izan ezik
·Makinak.
·Instalazioak.
·Tresnak.








III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

·Altzariak.

·Informazio-prozesuetarako ekipoak

·Enpresa-jarduerari edo jarduera profesionalari zuzenean eta esklusiboki lotutako garraio-elementuak.

·Aplikazio informatikoak









III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

- Frankizia-kontratuak
- Merkataritza-funtsa.
- Eskualdatze-eskubideak.



100 MONTADITOS®
/ CERVECERÍA - TAPAS /

Domino's Pizza

III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

Onuradunak egingo dituen inbertsio diruz lagungarriak, gutxienez 5.000 eurokoak, izan behar dira, eta 2025ko urtarrilaren 1etik dirulaguntza eskatu den egunera bitartean egindakoak.

Diruz lagundutako inbertsioek enpresa-jarduerari lotuta jarraitu beharko dute gutxienez bi urtez, eskuratzen direnetik aurrera (lehenengo fakturaren data),eta, **era berean, pertsonak JEZn alta emanda egon behar du aldi horretan.**

Ez dira, inola ere diruz lagunduko, berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Bigarren mailara arteko ahaidetasun-harremana dagoenean hornitzailearekin ere ez dira diruz lagunduko

III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO







ZENBATEKOA

Laguntzaren zenbatekoa **3.500 eurokoa** izango da onuradun bakoitzeko. Zenbateko hori **% 15 handituko da 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada** eskaera aurkezten den unean, **eta beste % 15 gehiago emakumea bada**

III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

ZENBATEKOA

Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideen kasuan, dirulaguntza ez da inola ere **10.000 €**-tik gorakoa izango bazkide guztientzat.



Muga hori aplikatu behar bada, bazkide bakoitzeko dirulaguntza kalkulatzeko, deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzaren partaidetza-ehunekoa aplikatuko zaio 10.000 euroko zenbatekoari, aurreko atalaren arabera legokiokeen dirulaguntzaren zenbatekoaren mugarekin.

III KAPITULUA: PROIEKTUA EZARTZEKO

EBAZPENA

Eskabideak lehiarik gabeko konkurrentzia-prozeduraren arabera izapidetuko dira. Horrela, **eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta ordenan ebatziko dira, dagokion espedientea osatzen den unearen arabera,** harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte.



ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, onartu ondoren.

ESKAERAK IZAPIDETZEA **Hemen**

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO 2026KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2026KO IRAILAREN 21EKO EBAZPENA

IV KAPITULUA

«PROIEKTUA SENDOTZEKO»





Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

NORENTZAT?
ONURADUNAK

Enpresa-jarduera bat martxan jartzen ari diren eta hori ezartzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonei bideratutako laguntzak.

Pertsona fisikoak:


- Banakako enpresaburuak eta profesionalak
- Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideak, **betiere dirulaguntza modu pertsonalean eskatzen bada.**



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

BALDINTZAK

-EJZn eta Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, dagokion araubidean **alta emanda egotea, 2025eko azaroaren 1a eta dirulaguntza eskatu den eguna bitartean** (alta mantendu behar da diruz lagundutako aldian zehar)



-Enpresa-jarduera EAEn helbideratuta egotea sozialki eta fiskalki, eta lantokia bertan kokatuta egotea (diruz lagundutako aldian zehar mantendu behar da, gutxienez)



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

BALDINTZAK

-**EJZn alta eman aurreko egunean langabezian egon izana** eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon izana

-Dirulaguntzen lerro horren beraren onuradun suertatu ez izana aurreko deialdietan

-Eskaera-egunean **18 urte** beteta edukitzea



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK

Enpresa sortu berri baten proiektua sendotzeko beharrezko diren sustapen-, funtzionamendu- eta kudeaketa-gastu hauek ordaintzeko:

·Gizarte Segurantzako kuotak/LAAB erregimenekoak
*Gastu hori ez da hartuko diruz lagundu daitekeen gastutzat, baldin eta Lanbidek edo beste administrazio publiko batzuek diruz lagundu badute


·Proiektuari lotutako komunikazio-gastuak. Publizitate- eta merchandising-kanpainak, saltoki eta ibilgailuen errotuluak, errotuluen argiztapena eta diseinua.







IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

·Web-orrien diseinua eta web-orrien eta sare sozialen mantentze-kuotak, publizitate bannerrak beste enpresa baten web-orrian, web-orrian pluginak sartzearekin loturiko gastuak, web-orriaren domeinua eta posta elektronikoa eta sare sozialetako sustapen-zerbitzuen kostua









IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

·**Aholkularitza** (zerga-, lan-, kontabilitate- edo administrazio-arloan, arlo juridikoan edo negozioaren kudeaketaren arloan, liburu-edukitzailetzarekin eta eguneroko zerga- eta kontabilitate-arloko betebeharrekin loturikoak, lan arriskuekin loturikoak, erakusleihoak aldatzeko eta hobetzekoak...) **eta coaching-gastuak.**



·Ekintzaileak eginiko **prestakuntza-ikastaroak**, zuzenean enpresa abian eta funtzionamenduan jartzearekin lotura dutenak, baldin eta diruz lagundutako aldiaren barruan hasten badira



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

·**Negozio-lokalen edo jarduera garatzeko lekuen errentamendua**, betiere baldintza hauek betetzen badira: ez izatea familia-etxebizitzaren zati; ez egotea 2. mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik lokalaren errentatzailearekin; eta ez izatea errentatzaile diharduen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide. Erabilera partekatuko espazioak ere deialditik kanpo geratuko dira, salbu eta errentamendu-kontratua onuradunaren izenean badago, zenbat ordaintzen duen zehazten badu eta erabilera indibidualeko espazio bat badago negozioa garatzeko, hori kontratuan jasota egonda.



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

Honako gastu hauek:

-Gizarte Segurantza

-Alokairua

-Aholkularitza eta coachinga

10 hilabeteko epean egindako gastuak, dirulaguntza eskatu den egunetik zenbatzen hasita.

Honako gastu hauek:

-Publizitatea eta errotulazioa

-Web-orrien eta sareen, posta elektronikoaren eta abarren mantentze-lanak.

-Prestakuntza-ikastaroak


diruz lagungarriak izango dira EJZn alta ematen den egunetik aurrera sortu eta ordaindutakoak, 10 hilabeteko epera arte, dirulaguntza eskatu den egunetik zenbatzen hasita.

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

Aholkularitza emateaz eta laguntzeaz **ardura daiteke legez eratutako edozein entitate edo enpresa,** haren jardueran sartzen badira diruz lagunduko diren jarduerak.

Zeharkako zergak ezin izango dira diruz lagundu (BEZ), baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO







ZENBATEKOA

Laguntzaren zenbatekoa **2.500 eurokoa** izango da onuradun bakoitzeko.
Zenbateko hori **% 15 handituko da 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada** eskaera aurkezten den unean, eta beste **% 15 gehiago emakumea bada.**

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

ZENBATEKOA

Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideen kasuan, dirulaguntza ez da inola ere **6.000 €**-tik gorakoa izango bazkide guztientzat.



Muga hori aplikatu behar bada, bazkide bakoitzeko dirulaguntza kalkulatzeko, deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzaren partaidetza-ehunekoa aplikatuko zaio 6.000 euroko zenbatekoari, aurreko atalaren arabera legokiokeen dirulaguntzaren zenbatekoaren mugarekin.

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

EBAZPENA

Eskabideak lehiarik gabeko konkurrentzia-prozeduraren arabera izapidetuko dira. Horrela, **eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta ordenan ebatziko dira, dagokion espedientea osatzen den unearen arabera,** harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte.



IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa honela egingo da:

·Lehenengo ordainketa: **dirulaguntzaren % 50,** dirulaguntza ematea onartu ostean,

·**Gehienez ere gainerako % 50 ordainduko da bigarren ordainketan**, benetan egindako eta egiaztatutako gastuengatik, aldez aurretik justifikatuta.



ESKAERAK IZAPIDETZEA Hemen

IV KAPITULUA: PROIEKTUA SENDOTZEKO

JUSTIFIKAZIOA

Diruz laguntzeko gastuak negozio-lokalen errentamendu-gastuak badira, gainera, errentamendu-kontratua aurkeztu beharko da. Fakturekin batera, ordainketa egin izana eta zein egunetan egin den justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Egindako gastuaren justifikagiriak aldi bakarrean aurkeztuko dira, diruz lagundutako 10 hilabeteko aldiaren hurrengo hilabetea amaitu baino lehen

Justifikatutako zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, dirulaguntza doituko da, eta, hala badagokio, aldea itzuli beharko da

DIRULAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

JUSTIFIKAZIOA

Deialdi honetan jasotako laguntzak justifikatzeko fakturen ordainketa guztiak honako hauen bidez egiaztatu beharko dira: **transferentziaren, taloiaren, txekearen edo ordainketa justifikatzeko beste edozein dokumenturen kopia, edo dagokion zordunketa adierazten duen banku-laburpenaren fotokopia, edo finantza-entitateak eginiko ziurtagiria.**

Eskudiruz eginiko ordainketak ez dira kontuan hartuko.



DIRULAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

Dirulaguntza aurreikusitako epeen barruan justifikatu ezean, jasotako dirulaguntza guztia itzuli beharko dute onuradunek; horrenbestez, aurreikusitako epeak amaitzen badira justifikazioa gauzatu gabe, dagokion prozedurari ekingo zaio jasotako zenbatekoak itzuli beharra adierazteko eta ordaintzeke daudenak eskuratzeko eskubidea galdutzat jotzeko.




DIRULAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK



Baldin eta III. kapituluko (Enpresa-proiektua ezartzea) dirulaguntzen onuradun diren ekintzaileak **ez badaude jardueran alta emanda**, edo alta emanda bai baina ez badaude deialdiaren 10.1 artikuluan aipatutako taldeetakoren bateko kide bezala alta emanda, 22. artikuluan adierazitako **2 urteko gutxieneko epean**, jasotako dirulaguntza osorik itzuli beharko dute. Hala ere,

betebehar horiek gutxienez urtebetez etengabe bete badira, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, bi urtera iristeko falta den denborarekiko proportzioan.

DIRULAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK



Baldin eta IV. kapituluko (Enpresa-jarduera bat sendotzea) dirulaguntzen onuradun diren ekintzaileak **ez badaude jardueran alta emanda**, edo alta emanda bai baina ez badaude deialdiaren 15.1 artikuluetan aipatutako taldeetakoren bateko kide bezala alta emanda, 22. artikuluan adierazitako **10 hilabeteko gutxieneko epean**, jasotako dirulaguntza osorik itzuli beharko dute.


Halaber, ordaindu gabe dagoen dirulaguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea galduko dute

DIRULAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK



III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira bata bestearekin, eta ez dira bateragarriak beste administrazio edo entitate publiko zein pribatuk kontzeptu bererako emandako beste edozer eratako dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarekin, edo autoenplegua sustatzea helburu dutenekin, **salbu eta langabezia-prestazioaren kapitalizazioa ez bada**


Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

BI DIRULAGUNTZAK BATERAEZINAK DIRA

EUSKO JAURLARITZAREN BESTE DIRULAGUNTZA BATZUK



Informazio gehiago

SPRI-(Enpresa garapenerako euskal agentzia)ren DIRULAGUNTZAK

Hemen

